

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Balio proposamena bezeroengana heldu dadin eta bere merkatu-segmentu osora iritsi ahal izateko enpresa batean komunikazio kanalak zehaztu behar dira. Genius Lens enpresako partaideek erabaki dugu produktua bezeroengana helarazteko kanal desberdinak erabiliko ditugula, hiru eragileren arabera.

Eragile horiek bezeroekin izan nahi dugun komunikazioa, hauen produktua erosteko aukera eta produktu honen zerbitzua izango dira. Ondorengo testuan zehaztu ditugu horietako bakoitzerako erabiliko ditugun kanalak eta horiekin lortu nahi dutugun emaitzak:

Lehenik eta behin, bezeroarekin edo bezero-segmentu anitzekin harremanetan jartzeko erabiliko dugun bide nagusia internet bidezko webgune propio bat izango da. Webgune horretan gure enpresaren eta produktuaren informazio osoa eskaintzen da, eta enpresarekin kontaktuan jarri ahal izateko informazio guztia bertan egongo da. Gune horretan gure telefono zenbakia, email-a eta kokapena agertuko dira, enpresaren partaideei buruzko derrigorrezko informazioarekin batera. Hala ere, Getary Gonzalez izango da gehienbat harremanetaz arduratuko dena. Gainera, webgunean atal bat eskeiniko dugu, webgunetik bertatik mezuak bidali ahal izateko gure enpresari.

Agerikoa da beraz, bezeroekin egingo den kontaktu bakarra zuzeneko kanal bidezkoa izango da.



Webgune hori izango da ere gure salmenten kanal nagusia.

Webgunea gure produktuak saltzera bideratuta egongo da, eta interesatuta dagoen edonork erosi ahal izango du bertatik zuzenean.

Online denda izango da beraz gure zuzeneko kanala, kanal propioa, lurren eta Eneritz Otegik batera eramanda. Hurrenez hurren,

lehenengoa salmentetaz arduratuko da eta bigarrena diru sarrera eta aurrekontuaz. Baina eskuragarritasuna eta presentzia zabaldu nahi dugun horretan, gure produktua beste denda fisiko zein digitaletan ere erosteko aukera emango dugu, elkartutako kanalekin.

Horrela, zeharkako kanalak erabiliz, ekitaldi eta horrelako ekintzatarako zuzendutako lokal fisikoetan gure edalontziak ere salduko dira, bertako jabeei salmenta eginez. Horretaz gain, Amazon bezalako beste plataforma digitaletan ere eskainiko dugu gure produktua, eta gure webguneaz gain plataforma horietatik ere egin ahal izango da ordainketa.

Azkenik, behin bezeroek erosketa egin eta gero, banaketa zeharkako kanalaren bidez egingo da. Hori bai, erosketa gure enpresaren inguruko eremuan egiten bada, prest gaude produktua zuzenean haiei eramateko.



Hasiera batean, distantzia urruneko helmugak ematen diren kasuetan, banaketa garraioa posta bitartez egingo da; posta zerbitua erabiliko dugu erosle individual bakoitzari berak erabakitzen duen helbidera bidaltzeko, baita bilketa puntuetara ere. Enpresa handitzen den horretan, gidariak kontratatuko ditugu, furgoneten bidez gure produktua zuzenean banatzeko.

Horren ondoren bezeroek ebaluazioa egin nahi baldin badute, aurretik aipatutako



webguneko kontaktuen bidez egin ahal izango dute, gurekin harremanetan jarri ahal izateko. Bezeroak beste erosleei gomendatu nahi badie, ordea, webgunean bertan, produktua saltzen den atalaren azpian, iritziak eta balorazioa idatzi ahal izateko aukera emango dugu.

Horrela, ondorengo erosle posibleek baloratu ahal izango dute, beste erosleei esker, ea produktua benetan beraiek bilatzen ari direna den.